



www.begiko.com

© Testua: 1996, JOSEBA OSSA

© Irudiak: 2018, MAITE GURRUTXAGA

© Argitalpen hau:

2018, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.

Legizamon poligonoa

Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.

48450 Etxebarri

Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-10-0

Lege-gordailua: M-16309-2017

Printed in Spain - Espainian inprimatua

Lehen argitalpena: 2018ko urtarrila

Sailaren zuzendaritza:

Joseba Santxo eta Maite Malagón

Edizioa:

Ainhoa Basterretxea eta Yolanda Caja

Zuzenketa:

Ane Barrenengoa eta Amaia Lasheras

Errealizazioa:

Miren Pellejero

Arte-zuzendaritza:

José Crespo eta Rosa Marín

Proiektu grafikoa:

Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega eta Álvaro Recuenco


Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Inari, Laponiako lore

Joseba Ossa

Irudiak: Maite Gurrutzaga

begiko



Inari, Laponiako lore

Ba al dakizu non dagoen Laponia? Begira ezazu ezkerrean duzun mapan.

7

Europako ipar muturra ikusten da: Norvegia, Suedia, Finlandia eta Errusia. Lau herrialde horien iparraldeko muturrak elkarrengana hurbiltzen diren txoko horretantxe dago Laponia, lau estatutan sakabanaturik.

Eta hortxe bizi dira laponiarrak, Zirkulu Polar Artikoaren marratik gora. Oso leku hotza da. Negu luzea dute eta uda, berriz, labur-laburra.

Laponiarrek eskimalen antza dute, baina ez dira berdinak. Eskimalak Groenlandian eta Kanadako iparraldean bizi dira, inoiz urtzen ez diren izotzetan. Laponiarrek, berriz, badakite

zer den lur gainean bizitzea. Gainera, arrazaz ere desberdinak dira.

Laponiako hizkuntza laponiera da, —edo *sami*, beraiek esaten duten bezala—, hizkuntza finougriarren taldekoa, hau da, finlandiera, estoniera, hungariera eta beste zenbait hizkuntza txikiren familia berekoa.

8 Liburu honetan neskatxa bizi eta alai bat ezagutuko duzu, Inari, eta bai haren familia ere. Laponiako leku baketsu batean bizi da, ia-ia galduta dagoen txoko batean, Ivalo ibaiaren ertzean, eskola eta dendak dituen herritik 80 kilometrora. Egurrezko etxe txiki bat du bizilekutzat eta hantxe jaio zen duela hamabi urte.

Txoko maite horretan bizi da bere senideekin. Liisa du izena amak, eta Matti aitak. Bi neba-arreba ditu: Aslak, hamar urteko mutil bizkorra, eta Marit-Inga, neska, etxeko gazteena, datorren udazkenean sei urte beteko dituena.

Ah, eta barkatu! Ez dizuegu esan zein urteetan gauden. Hemen kontatzen diren gertakari hauek 1970ean eta 1971n gertatu ziren, «zi-

bilizazio moderna» lur haietara iristen hasi zenean, oraindik gure lagunen bizilekuan autontzako biderik ez zegoen garai hartan. Telebista ere ez zuten ezagutzen, ezta haren falta sumatzen ere, zorionez...

Laponiarrek asko maite dute natura. Berarekin adiskideturik bizi dira, ondo baitakite elkarri lotuta daudela. Hala ere, ez daude arrisku guztietatik salbu, noski. Orain, abentura kilikagarriak bizi, Laponiako bizimodua ezagutu eta bizipen zoragarriak izan nahi badituzu... orduan zatoz gurekin, gu ere berehala han goian izango gara eta!

Afalosteko ustekabea

10 Inariren familiak, laponiar gehienek bezala, elur-orein ugari ditu, hirurehun inguru. Oso animalia politak dira, eta atseginak, gainera. Ez dute inoiz minik ematen, ezta beraiengana hurbiltzen zarenean ere. Baina noizbehinka ezbeharrak gertatzen dira. Adibidez, behin batean, Inariren familia lasai-lasai afaltzen ari zela...

—Entzun! Zer izan da hori? —galdetu zuen amak, kezkatu-rik.

—Zer? Nik ez dut ezer entzun —erantzun zion Matti aitak.

—Ilargia eroriko zen zerutik —esan zuen Aslak bihurriak, barre eginez.

—Isildu! —agindu zuen amak—. Ez dut uste txantxetarako kontua denik. Animalia baten ho-

tsa izan dela iruditu zait. Hobe izango dugu badaezpada begiratzera joatea.

Ume guztiak berehala pilatu ziren leiho ondoan, kristala irentsi nahi balute bezala, eta hitz egiten lehena Inari izan zen:

—Nik ez dut ezer ikusten hor kanpoan; dena beti bezala dago.

—Bada, nik zerbait entzun dut, ziur nago, eta oraintxe noa zer den ikustera. Zuek hemen barruan gelditu eta ez altxatu mahaitik zopa guztia amaitu arte.

Amak eskuan zituen ontziak utzi eta kanpora joan zen, zalantza hura argitu nahian.

Etxetxoaren inguruan begiratu zuen, baina han ez zegoen aparteko gauzarik. Ibaira jaisten den bidea hartu eta zuhaixken artean begiratu zuen, baina han ere ez zegoen ezer.

Etxera itzultzea erabaki zuenean, berriro ere zarata arraro bat entzun zuen eta, handik pixka batera, elur-orein baten oihua. Animalia hura minaren minez saltoka eta intzirika ari zen, zalantzarik gabe. Baina zergatik? Liisak ezin zuen

elur-oreina ikusi. Eta badaezpada etxera joan zen laguntza eske.

—Matti, zatoz nirekin ibai ertzera, gauza bat erakutsi behar dizut-eta.

—Zer gertatzen da? Kezkatuta al zaude?

—Ez, ez da ezer, baina zurekin joan nahi dut hara.

12 —Nik ere joan nahi dut —esan zion Inarik.

—Nik ere bai! —oihukatu zuten Aslakek eta Marit-Ingak, biek batera.

—Ez, zuek hemen geratu lasai eta ez altxatu mahaitik afaria amaitu arte. Ondo entzun al duzue?

—Bai —erantzun zion Inarik.

Amak ez zuen nahi umEEK ezer entzutea eta, horregatik, kanpora irten arte ez zion ezer kon-tatu aitari.

—Entzun, hor behean, erreka inguruan animalia-
ren bat dago saltoka eta minez oihuka. Lotuta dagoela dirudi, ez baita mugitzen.

—Otsoren bat etorri ote da janari bila?
—galdetu zuen aitak, zeharo harrituta.

—Ez dut uste. Udaberria igaro da eta udan sartzen ari gara. Otsoak ez dira garai honetan agertzen —erantzun zion amak.

—Bai, hori hala da, baina orduan, zer izan daiteke? —jarraitu zuen aitak.

Zalantzak argitzeko asmoz, bertara joatea erabaki zuten. Umeak leihotik begira zeuden, hiru buru txikiak bat eginik, eta gurasoen kezka-aurpegiak ikusi zituzten. Irrikaz zeuden zer gertatzen zen jakiteko. Aita txabolara joan zen zerbaiten bila.

—Begira, aita eskopetaren bila doa txabolara —oihukatu zuen Aslakek.

—Eta zuk zer dakizu? —erantzun zuen arreba nagusiak—. Agian soka edo sarearen bila doa, animaliairen bat harrapatzeko.

—Goazen kanpora zer den ikustera! —oihu egin zuen berriro mutilak, baina Inarik ez zion utzi, amak esandakoa bete behar zelako.

Gurasoak bidean behera zihoazen. Oihuak gero eta ozenago entzuten ziren, eta beldur pixka bat sentitzen hasi ziren.

—Oso arraroa da —esan zuen ahots isilez amak—. Argi dago min-oihu horiek elur-oreinarenak direla, baina ez da bestelako hotsik entzuten, ez otsoarenak, ezta txakur edo aze-riarenak ere.

14 —Bada, hartzak ere ez dira honen urrunera etortzen. Beraz, beste zerbait izango da. Goazen bertara!

Kontu handiz hurbiltzen ari ziren, eta umeak, bitartean, leihotik begira, adi-adi. Egia esan, beldurrez begiratzen zuten hirurek, han behean zer gertatzen ote zen pentsatuz.

Baina Liisa eta Matti haraino heldu zirenean, hura ustekabea! Han ez zegoen inolako basapiztiarik elur-oreinari erasotzen. Saltoka ari zen, bai, beldurrez eta minez, baina ez inor erasotzen ari zitzaiolako, adarrak sarean trabatu zituelako baizik.

—Ai, gure Atik txiki maitea! Ikara ederra eman diguzu, bihurri horrek! —esan zion Liisak—. Nolatan etorri zara hona, deabrutxo hori?

—Zu arrainaren usainean etorriko zinen hona, ezta? Ai arraio alena! Baina lasai, laster askatuko zaitugu-eta.

Izan ere, Matti goizean ibaian ibili zen arrantzan sareekin eta, horiek lehortzeko, zuhaixken adarretatik zintzilik utzi zituen. Atikek, sareko kortxoak ikustean, fruituak zirela pentsatuko zuen eta haiek jateko asmoz hurbilduko zen. Orduan, bat-batean, adarrak sarean trabatu, ezin askatu eta urduri jarriko zen.

Liisak eta Mattik lan handia hartu zuten elur-oreinaren adarrak askatzen. Sarea moztu gabe egin nahi izan zuten lana, baina ezin... Mattik gerrian zintzilik zeraman labana hartu eta, azkenean, sarea hiru lekutatik moztu behar izan zuen.

Atik izeneko elur-oreinak txikitan galdu zuen ama eta aitaren berririk ez zuen inoiz jakin. Taldekideak baino ahulagoa zen eta, agian, horrexegatik hartu zuten haiek etxekotzat. Sarritan ibiltzen zen Liisaren etxe inguruan, mokadu gozoen bila. Izan ere, izugarri atsegin

zituen ogi puska lehorrak eta gaileta antzeko opilak. Hain zen mokofina bera!

Begien azpian eta lepoan zauriak zituen eta, beraz, etxe barrura eraman zuten sendatzeko.

—Iufi! Begira! —oihukatu zuen Aslakek—. Atik da! Etxera dator! Goazen berarekin jolastera!

16 —Baina zaurituta dago... Odola dario, gizajoa! —erantsi zuen Inarik.

Orduantxe sartu ziren ama eta aita sukaldera, Atik trastelekuan utzi ondoren, eta laster zapuztu zituzten umeen jolasteko gogoak. Amonak etxean egindako botika prestatu eta zaurietan ipini zion oreinari, lehenbailehen sendatzeko. Inari eta neba-arrebak han zeuden, jakin-minez gainezka, arreta handiz begira. Amonak maitasun handiz zaintzen zuen Atik, semea izango balu bezalaxe. Eta nola hitz egiten zion! Berdin-berdin hitz egiten zien elur-oreinari eta umeei, guztiek den-dena ulertuko balute bezalaxe. Atiken aurpegian ere gozotasuna eta ongi-zatea nabaritzen ziren, amaren faltan «amona-ren» esku gozoa izugarri atsegin baitzuen.